

Gure kea eta gure sua **surfing**

IÑAKI BASTARRIKA





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

IÑAKI BASTARRIKA

Gure kea eta gure
sua **surfing**

Gure kea eta gure sua **surfing**

ESPLIKAZIO BAT **SED QUIA SUA** LIBURUAZ



bAst 2022

eskaintza:

seguro 21. mendeko belarridun desprofeta
xume olgetan-benetango hari/honi

Sedquiasua explained by bAst

bAst 2022



-Zer da unibertsoa?

-Unibertsoa? Unibertsoa, déna da.

-Déna?

-Liga dena, eta, champions dena.

FUTBOL-SASOIA 2022-23 HASIERA

*Nihaurek ere nik konprenitzen ditut bi mintzaira arrotz,
mintzatu ere egiten ditut behartua naizen oroz;
horiek hola ni euskarari nago bihotzez ta gogoz,
ez ederrarengatik bakarrik, baina gurea delakotz.*

XALBADOR PERTSULARIA

*Arantza askorekin joan haiz eta hire arantzetako bat **Sed quia sua** liburu zailegia zela huen. Jendeak beldurra ziola irakurtzeari, **erdiko trontzoa ezin zela ulertu**, ondoena ulertzen zenean bukatu egiten zela... Liburuari begira jarri eta konturatzen nauk hi heu gelditu haizela bere pare: makina bat jenderentzat zailegia duk hire heriotza ulertzea eta gelditu dituk barruan arantza (eta zornea) dutela. Hire bizitzan ulertzen nekezak diren trontzo mingarriak esplikatzen jarri dituk lagun minak eta andrelagun hau. Bitxia duk, denetan lotsatienak, diskretuenak eta esponitzea gorrotatzen dugunok gaituk idaztera jarri garenak. Gaia eman diguk Iñaki, ez gutxi gainera. Ea gauza garen azaltzeko.*

GARBIÑE LARREA ANDREA LARGUNA

*Pentsatu izan dut liburuaren edizio arina ateratzea, 80 orrialdekoa, oinarrizko eskema azalduz. Baina niri ez zait eskema interesatzen. Egin behar dena: **aldapatsua dela mentalizatu, eta liburua surfeatu, edo toreatu, edo hor ibili bueltaka.***

IÑAKI SEGUROLA Argia aldizkaria, elkarrizketa –Kepa Matxain- 2020ko abenduak 31

Sed quia sua lana arin, arinegi irakurri eta iruzkindu nuen *lazzaretto vecchio* blogean agertzeko. Liburua argitaratu zela eta lehenbailehen ezagutzera eman nahian. Liburu zailtzat hartu nuen orduan, eta orain, irakurketan sakondu ondoren, liburua ez zait zaila iruditzen, baizik eta ulergarria eta erraza ere bai, funtsari dagokionez. Horregatik, ahalegina egin nahi nuke, liburu sendo honen mamia ezagutarazteko, zailegi ez baita liburua eta bai zilegi. Neure lanaren izenburua hau da: **Gaur ere ez du Iñaki izateko eguraldirik egingo [Sed quia sua esplikatu nahian].**

bAst, 2022ko iraila

Oteitzak ipuin bat asmatu zuen euskal arimaz, **cromlech edo harrespilak** ikustean. **Segurolak** bertze ipuin bat asmatu du euskal arimaz, **hitzak edo hitzespilak** aditzean.

Ura & hitza

Bazen behin herri bat hizkuntza batekin. Herritarrak, goizero, egun on elkarri esan eta **iturritira joaten ziren**, egun horretarako behar zuten **ura** ekartzera. Iturritiraino oinez joan eta han ur frexkoa edaten zuten kaniletik bertatik, eta gero, ontzia betetzen zuten etxera eramateko. Etxe guztietan ur frexkoa edaten zuten. Bukatzen zenean, berriro joaten ziren uretara iturrira. Batzuetan egunean bizpahiru aldiz, baina gehienez egunean behin.

Egun batez Lixtomenditik gizon lixto bat etorri zen eta hasi zen **ura botiletan sartzen** eta etxean botilak pilatzen. Egun bakarrean, ehun botila betetzen zituen urez eta gurdi batean eramaten zituen etxeraino. Han, arasan sartze zituen ehun botilak, eta hilabete osoan ez zen joaten iturrira. Lixto jauna, harro zegoen, bere burutazioaz, eta bertzeak gutxiesten hasi zen: “Zoazte bai eta nekatu egun euritsuetan eta hotzetan, ni hemen egonen naiz lasai asko epelean. Eta bero egiten duenean, berdin. Zuek bai tontoak!”. Eta ur botilak eta botila urak saltzen hasi zen eta urarekin dirua egiten. Jendeak erosten zion, lixto izan nahi zuelako. Iturritirako bidea ahortzi zuen eta bere sosak gastatzen zituen ura erosten. Eta gainera ura ez zen hartu berria, egon-egondakoa baizik.

Gutxi batzuek irauin zuten iturrira egunero joaten, eta haiek egunero hartzen zuten ur frexkoa. Eta **solasaldi bixi-arinak** egiten zituzten. *Zer berri?* galdetuz elkarri. Aipatzen zuten jende gutxi etortzen zela iturrira, eta iturritiko solasgaiak jende gutxi segitzen zituela, eta batzuek ez zekitelako “aliritzira” hitzak zer erran nahi zuten, esaterako.

Hitz batzuen galeraz jabeturik Azkarraga lixtoberria **hitzak saltzen** hasi zen. Hiztegi bat egin zuen. *Aliritzira, iritzira* eta bertze hitz asko zekartzan. *Iritzira: Behar adina pentsatu gabe, beharrezko argibideak izan gabe, gutxi gorabehera. Ez dakigu, iritzira ari gara.* Eta hiztegia saltzeko iragarki bat egin zuen: “Orain ez zara joaten iturrira eta hango hitz frexkoak galtzen ari zara? Erosi Iritzi Hiztegia, hor dituzu iturritan esan ohi diren esapiderik jatorrenak”. Jende askok erosi zuen hiztegia eta etxeko apalean jarri, baina ez zuen asti handirik hari begiratzeko. Noiz edo noiz hitz bat edo bertze begiratzen zituen.

Iturritan badator ur xirripa, larrez josita dago iturbidea.

bAst

SED QUIA SUA

SEGUROLA



HIZKUNTZA HONEK ZER DIOEN ANTZEMATEKO SAIOA

erein

Sed quia sua (baizik-eta berea delakotz)



Iñaki Seguro *sed quia sua* liburuaren aurkezpen egunean (2020ko azaroa)

EUSKERA EZ DA ZAHARRA

Euskera ez da zaharra
Da berri berria
Errez-erreza eta
Zailtasun gabia.
Umeak jolastuz
Ikasten ai dia.
Dena eta ez dena
Da beti guztia.

Gaiak ez dira gauzak
Gaiak gaiak dira
Gauzak ez dira gaiak
Gauzak gauzak dira
Gaiak dira -tzekoak
Gauzak -takoak
Gaia errekan ura
Gauza tantan loa.

Ogrue omen anker
Gizajale zigante
Hankaundi makal eta
Bizkor erdi tunante
Horrelakok esanda
Bagoaz gu abante.
Idatzi du hamaika
Liburu elegante.

Askotasuna da bat
nazkatasuna bestea
konk egin duela
izan da albistea.
Ogibidez izan du
hitzak elkarri jostea,
orain Xalbadorrekin
bertsoak abestea.

Jakintza duke ikasiak
Jakinduria herriak
Eskolatuak ikasten du
Jakiten ditu berriak,
Herriak berriz probatu eta
Prestatzen ditu gerriak.
Ezin leizken gauzak
zaizkio ulergarriak.

Gurea Harrazoaia
Arrazoi harroa
Besteren txit gañetik
Harroki badoa
Apaltzen ez bagera
Ixiltzen orroa
Katuak jango du rau
Etxeko zozoa.

Bast 2022 uzta



B a s o a

Argazkilaria: Juan Luis Aizpuru Beristain

Iturri zaharretik

Iturri zaharretik
edaten dut,
ur berria edaten,
ur berria edaten,
beti berri den ura,
betiko iturri zaharretik,
beti berri den ura.
Iturri zaharretik
edaten dut.

Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
hitz bizia aditzen,
beti berri den hitza,
betiko hizkuntza zaharretik,
beti berri den hitza.
Iturri zaharretik
edaten dugu.

J.A. Artze



Laburpena: SED QUIA SUA

lñaki Seguroiak ipuin bat kontatu nahi digu eta kontatzen digu. Oteitzak *Quosque tandem* (noiz arte) liburuan bere ipuina kontatu zuen bezalaxe. Seguroiari hau ulertu diogu: guk ez dugu hizkuntza menderatzen, hizkuntza bere kasa dabil, hizkuntza gudan sartzen da. Hizkuntzak gauza.

bat

Seguroiak dioenez, **jakinduriatik jakintzara** pasa gara, hau da, (diot nik) labesua eskuarekin neurtzetik termometroarekin neurtzera. Zenbakiak, zehaztasuna,... Ipuinak kontatzetik bertsozientzia egitera pasa gara, eta hori galera handia da, haren iritziz.

Bi

Baziren eta badira: gauzak eta gaiak. Gauzak gauzak dira, eta gaiak gaiak dira.

“Gauza-munduko zerak dira –ak- eta gai-munduko zerak ziren/dira- tzekoak” dio berak.

Orain medikamentuak, lehen sendatze**koak**. (sendagaiak)

Orain edukiak, lehen jakite**koak**. (jakingaiak)

Orain hitzak, lehen esate**koak**. (esangaiak)

Gauzak bukatuta daude, eginak dira, hilak. Gaiak berriz, beti daude egiten, biziak dira.

Gaietan gaiena URA da, beti bizi-bizia (ontziratu ezik) eta gauzetan gauzena DIRUA edo jabetasuna.

hiru

“Guztia da: dena eta ez dena, direnak eta ez direnak”

Denari gehitu behar zaio *ez dena*. Nik diot, adibidez, (**direnak eta ez direnak**: bost anai-arreba, hiru bizirik eta bi zenduak) **guztira** bost. Diruak, direnak eta ez direnak: gureak (bortz txanpon) eta maileguan eskatuak (hamabi txanpon). Guztira hamazazpi txanpon.


Dena +ez dena= guztia

Ezkontza oteiza-mitchelena

Ni nator bi horiek ezkontzera, Ogruek bidali nau, baina bi hauek ez dira ageri.

Bitartean... *dakeriaren* aurkako manifestu hau irakurriko dizuet, Seguiolaren partetik. Hari aditutakotik harturiko apunteak dira **eta neure iruzkinak**.

Jorge Oteiza harrizalea zen eta Koldo Mitxelena hizkuntzalaria. Nork bere aburuak. Biak herrizaleak. Bata harritik, bertzea hitzetik.



Sed quia sua (baizik eta *gurea* delakotz)

15 **bixi-arinetik hil-astunera** amildu gara. Eskolak hondatu gaitu. (hizketan errex egitetik hizketan nekez egitera pasa gara, herdoildu egin zaigu hizkuntza, edo hobeki esanda, hizkuntzak herdoilduta aurkitu ditu gure mihia eta gogoa)

(ezagutzen ditugu jende alfabetatuak, beren guraso alfabetatugabeek baino askoz okerrago hitz egiten dutenak, euskaraz bereziki).(era berean gogora datorkigu cantaore flamenko batek esandakoa: idazten eta irakurtzen baldin badakizu ezin zaitezke cantaore ona izan)

17 e-koplarria bai, baina **bertsolari gurea, garaikidea, ez da gurea**. Gutarra bai, oso-oso gutarra, baina beste “gu” batzuen. (azken bertso saioa entzun ondotik, esan nion lagunari: betikoak betikoa esaten).

Urrun gelditzen da bertso-koplarrien (axaleko) deskoherentzia ezbaikari hura.

19 olgeta hutsak nekatu egiten du eta beneta hutsak nazkatu egiten du. (...) olgeta-benetakoak lortzen duena da entzuna izatea, olgetan edo benetan ari den asmatu ezinak hartaraturik eta “agian egiaren bat ariko duk botatzen pailazo hori”. (bai, eta galanta!) (Pailazo izateko gogoa, egunetik egunera handiagoa!) (tximu-bastanga nauzue!)

21 **abertzale izatea** da, ipar-ekialdeko euskaljendeari ikasitako definizio edo ezdefiniotik, hauxe: lurrarekiko eta hizkuntzarekiko atxikimendua, eraspina edo, hitz politikoagoz esanda, maitasuna. **Anarkotasuna** (ez “anarkismo” deritzan dotrina extu fedepotoloa) da boterearekiko ez-maitasuna: ez lurra eta ez hizkuntza dira goiko ezerk sortuak, ez ezein goi-aginte edo aginpidetik moldatuak. **Lurrak ez du guraso ezagunik** (gurasoak dituena lurraldea da) eta **hizkuntzak ez du jaberik**, eta da- aditu ondo!- herri ezjakinaren asmakaria (literaturginek

eta akademikoek kudeatzen dutena letrakuntza da; letra-kuntza: ez hitz-kuntza). (letra-kuntza/hiz-kuntza) (batzuek ez dute sekula libururik irakurtzen, baina belarriz gustura jasotzen dute liburu horien mamia)

27 zer da **mendira joatea** nire-guretzat? Da bizirik gaudela jakitea. (& arnasa hartzea)

31 hizkuntza extinct batean ari gara, nonahi extinct-aroan sartutako hizkuntza batean; **akitaroan, agortaroan**. (ingelesean dugun maila bertsean mintzo gara euskaraz?) (hemen ulertzen da hizkuntza bixia egiteko gaitasuna galdu dugula, eta, diot nik, lehor mintzo ditugun kanpoko hizkuntzetan bezalatsu mintzo garela euskaraz ere)

(gertatzen da bixi-arin mintzo den batek hil-astuntzat jotzea “euskerakastoleroa” eta zuzenean nahiago izatea gaztelaniaz mintzatzea).

32 borroka bat latza daroat ni neu **iritzi-agertzaile bihurtzearen kontra eta pentsamendu propio bat nire-neurea garatzetik/gatzatzetik itzuri**. Borroka horren izerdi-rika antzeman behar zaio, behar litzaioke, liburu honi. (latza benetan) (hau ezbaikaria da gutziz) (pentsamendu propio bat ez dugu nahi?)

45 adur /indar: beste ipuintxo bat. Oso asko sinistu behar da. **Baina gu ez gara hortain sinesberak**. (bejondeizuela!)

60 **egia oso gaingoretsia dago**, edo egona da, zeren berez edozein/edonongo giza gogotan egia ez baita besterik baizik-eta esate baten nolabaiteko egokitasunaren adierazlea.

61 hemen egiarekin bakarrik ez duk inor bizi, e?: ez politiko, ez enpresario eta ezta eskalerik ere” (entzuna diot Rossy Bidegorri adintsu pixkorrari: **gezurrarekin ez da inora joaten eta egiarekin ere ez**)

71 **Herriak badaki, oharkabean jakin ere, hizkuntza ez dela gauza bat; beraz, ez “gauza xeibre”** bat ere eta ezta, barrenagoko altzoren batean, dakigun/daukagun gauza bat ere, baizik-eta **gauzkan eta gakizkien zerako zera bat**. (gu gaudela haren baitan, alegia) (txikitan ikasten dugu hizkuntza, oinarritzko guztia, guraso eta ingurukoengandik, hizkuntza gure barrura sartzen da, haizea etxera bezala, eta ahotik irteten du, aho-mingainetik kanporatzen da. Antzera esan ohi da: lurra ez da gurea, lurrarenak gara. Orobat erran dezakegu: hizkuntza ez da gurea, hizkuntzarenak gara.)

72 **zertarako dugu gure arteko adiskidetasun bigun hau**, adoskeriara eta antzutasunera ekarri gaituena? Nik gure ondorengo adiskide izan nahi dut. (nik ere bai, gaurkoen adiskide izatea zaila da eta) (ondorengoetan gutxiengo bat izanen da liburu hauek letuko dituen, baina gutxi horiek aski izanen dira).

BIGARREN PARTEA The great transformations

81 munduan dauden zerak **“gauzak”** dira, beraz, beren izenez. Baina e-hizkuntzan eta gogoan munduko zerak ez dira beti izan **“gauzak”** izenez; **noizbait munduko zerak “gaiak” izanak dira** izenez, eta izanez noizbait ez-ezik noiznahi ere bai, baina orain izen hutsetik ari gara abiatzen.

(*eutsi ezpalari/ eutsi goiari* espresioen sorburuan ezpalen bat edo goiren bat izango zen, baina gaur jadanik espresio eginak dira horiek, ezpal eta goi jakinik gabeak)

83 beraz: gaur edo axaletik, **munduko (“gauza-munduko”) zerak dira AK** eta, lehenago edo azpitik, **munduko (“gai-munduko”) zerak ziren/dira TZEKOAK**. *Great transformation* bat; aldatze(n) bat gaitzekoa. Munduko zerak AK (gauzak) izatea: itxiak, gatzatuak, jakinak, eginak; munduko zerak TZEKOAK (gaiak) izatea: izan/**esan nahi-behar-ahal batzuk** ez itxi-gatzatu-jakin-eginak. (**nahi, behar, ahal**: esan nahi dut, esan behar dut, esan ahal dut, izan nahi dut, izan behar dut, izan ahal dut-naiz,...) (orain nahi dut, orain behar dut, orain ahal dut)

[Aulkia nerea da (gauza) >>> aulki honetan nago momentuz (gaia)
Jarlekua leku bat da, ez da gauza bat]

86 **e-gogo** zahar eta betikoan, zeinaren arabera mundua ez a-gauzaz baizik-eta tzeko-gaiz osatua legokeen, **asmoa eta gauzatzea, biak dira tzekoak/gaiak**, eta gertatzen den zera bakarra da **tzeko batetik beste tzeko batera** igarotzea, burutze/mamitze/gogortze behin-betikorik gabe. (*asmoa eta gauzatzea, biak dira gaiak*)

97 ura da gaietan gaiena. Ura da, neretzat, Ama Ura. (*lurruna ere ura da?*)

107 **kritikak epaitzen du emaitza, egintza, obra gauzatua**. Ez da iristen “hor” dagoen gaiaz jabetzera. Kritikoa aditua da, ez aditzailea (herria bezala): gorra da **tzekotasun** ororentzat eta **tutakoaren** azpitik mintzo den tzekotasunarentzat. Orain ulertu dut, e-gogoari umilki aditzen hasi natzaionetik, egundaino ulertu ez dudana hau: “esaten (gehi egiten?) duena bezain garrantzizkoa da esaten (gehi egiten) ez duena”. (*bertuteak hala izendatzen dira: ez du erretzen, ez du edaten, ez da ibiltzen x-ekin...*)

(*aurreko batean Maritxu Arzelusek aipatu zuen nola balkoietako lore-sariketan saritzen dituzten lore koloretsuenak, ugarienak, ikusgarrienak,... eta berak, balkoia egutera ez izanik, itzalean baizik, ezin dituen horrelakoak atera; baina aldiz, badituela landare mota ugari, eman dezagun hogeia. Horrek ez al du baliorik? Haren iritzian bai: *bere balorea du* (zer saritzen da? Eder-gauza, baina ez eder-gaia).*)

108 txirrita. Egun batean karro bat barrena sartzera zijoazen Saturnino, Txirritaren koñaduaren anaia, eta Txirrita. Saturninok esan zion: -Mugituko ote degu, Joxe Manuel? Eta Txirritak: -Nik eltzen badiot, mugitu bearko du, **karroak aurrera edo munduak atzera**”. (*lazkao txikiren autobuseko bidaia bezala umetan: arbolak atzera atzera atzera...*)

111 hilezkortasunaz. Nik luzaroan uste izan dut **ez nintzela behin ere hilko**. Oraindik ere ez dit zeharo aldegin uste horrek. Ezuste eta husterik nekez hartzen duen ustea da, eta hor segitzen du azpitik: oso aspaldiko lorratz baten eran sentitzen dut ni baitan. **Tzeko/gai (beti-luzakor)** gisa irakurtzen bide dut neure burua; ez tutako/gauza (noizbait-etenkor) moduan aletzen. (**beti izango haiz gai, beti, ...**) (etorri iturri oneko...) (gizon beti -bizitzeko bat)

(*bitxia da nola uste izan dezakegun ez garela hilko, seguruenik sasoian gaudelako eta sasoiak beti iraungo digula uste dugulako,... betikotasuna ez al da ba horixe, beti iraungo duguna uste izatea? Izan ere, “gu ez izatea” hori asmatzen zaila da. “Ez naiz izanen” garaia nolakoa izanen da?) (Des-ni-tzea zer ote da? Nigabetzea alegiya?)*

115 **artikuluetan ikergaia** dago bixi-arinki; **liburuetan**, aldiz, **jakingauza** hil-astunki. Jabetzen naiz. Eta hala ere... (liburua egin nahi, geratuko den zer-gauza bat, pixkat astunduko duena gure izate hegazkorra; baina aldiberean bertze batzuentzako lehengaia, *quosquea* bezala)

117 Hildakoek zer egiten dute? Zertarako dira edo daude? Entzun dugu gure baitan eta erantzuna ingurutik: "gu haiekin gogoratzeko daude". (ez da erantzun txarra; eta haiek egin zutena guk erreferente gisa izateko ere bai, nik uste)

121 **Aditzaile jakile- etorridun** gara, ez aditu-jakintsu-sortzaile. **Entzunik eta aditurik**, errazago etortzen dira gauzea eta gaia. (gauden adi beraz)

Direnak eta ez direnak

e-estilo ezbaikaria, baiari bezain ezari emana.

124 Izena duen orok duela izana! Mese eta fabo! Ez du izenak egiten izanik! (jolin, ba beti hori entzun dugu...! ;)) (nik **ferrari** bat daukat garajeen esateak ez du **ferraria** jartzen garajeen)

Mendebaldean harrazoia nagusi (Segurolak dio harrazoia dela arrazoi harroa, arrazionalismo ar uste handiko batek ekarria)

131 **guztia da: dena eta ez dena, direnak eta ez direnak**

(direnak eta ez direnak: bost anai-arreba, hiru bizirik eta bi zenduak>>guztira bost Diruak, direnak eta ez direnak: gureak eta maileguan eskatuak Zerraren hortzak, punta ta hutsune, punta ta hutsune...)

(esaten direnekin batera, **esaten ez direnak** ere esanguratsuak ditugu)

Oteitzak berak zioen: *Conozco a mi pais profundamente, desconozco a mis pais profundamente*. (Sakonki ezagutzen eta sakonki ezezagutzen, ezbaigariki- e-gogoaren arabera!)

141 unibertso hedakorra

142 e-gogo zaharrera behar dugu, lagunok, mundutarrok (mundugarailetarrok!) Gure gogo garaitu/irendu honen azpian gaizki erotzea adinakoa izango da! (bai, hala nago ni ere, e-gogo zahar horrek badu irakasgairik guretzat). (izatekotan ongi erotu, eta ez gaizki)

143 a nuestro cromlech vacío no solamente le falta un pedazo, le falta todo, y todo aquello que le falta es realmente lo que tiene, lo que es. (oteiza)

146 **to be or not to be**, shakespeare, guk **to be and not to be**. (biyak alegiya, **izan eta ez izan**)

147 gogo garaikide ñaño-tua mintzo da "**dena da**"ka.

Nire baitako gogo antzinako batek denaren eta ez denaren –direnen eta ez direnen- bila **eraman izan nau azkengabeki**; ezin etsi nezakeen guzti-oso eskurakoitu gezurrezko batekin.

(bila azkengabeki, azkengabeki,...)

149 maiz aditua: **apaiza, odolkia eta apustua**, nolakoak egiten diren halakoak izaten dira.

152 **naizena eta ez naizena, naizen guztia**. (horixe ta bera!)

154 **hemengo gutarkeria da espagnolkeria odolbero bat**, ez berez bertakoa, baizik eta gaztelako haize erreak ekarria. (ta geuk onetsia, neurri batean)

156 gauzak (gaiak) garbi: **gizona “dena” lortzeko dago: emakumea “denera eta ez denera” zabaldua dago**. (hemen badago mamia edo gaia, badagoenez!)

157 gizartean tzeko/gai mailan emakumea da jori: gauzatze mailan, aldiz, da urri. Gizona, alderantziz. (hemen ere bai)

Anarko-amertzale ere izan gaitzke. (eta anarko-arrantzale ;))

159 bere baitan **gizagaixo** izu galdu-beldurrekoa denaren mina estaltzen du kanporako **gizagaixto** irabazle goi-harro beldurgarri moduan ageri denak. (gizagaixo gizagaixtotuak gara)

160 E-gogo zaharraren biziberritzerik ezean, **dakeriaren azpian penatuko da mundua egun eta eguzki**. (dakeria, dakeria, dakeria,...)

161 e-profeta erdalduna: yo nunca hablo de lo que sabía antes.

162 “dena zeukan eta bere buruaz beste egin du”. Psikiatriak ez dio usainik hartu. Jendeak bai: **“dena zeukan eta dena falta zuen”**. (zenbat holako ez den pasatu!)

162 zerk sendatzen du? Erantzun ofiziala: “printzipio aktiboak”. **Horixe da dena!** Horixe da osasun dena. (printzipio aktiborik onena *maitasuna* edo seg-eran errateko *laztantisuna*)

163. calderon de la barca, **en esta vida todo es verdad y todo es mentira**. (gezur-egi a edo egia-gezur)

165. dena dakienak **ez bizitzen asmatzen** du eta **ez bizitzen uzten** du. Oihenart: aski dakik bizitzen badakik. (orjakiletza beldurgarriya) (hemendik zenbat arazo datorren, ene!)

168 ez dago hitzun eta/edo/nahiz **betsolari garaikiderik** harrituko gaituenik. Ezina da. Eskola gehitxo. (bai, eskola gehitxo... betiko bertsolariak betiko gauzak esaten, gaur egun)

baserritarrak: **elurra behetik gora egingo balu**, ez luke hoinbeste jendek eskatuko” (aurrena itsas ertza eta gero mendia) (ona!)

mundu- ikuskera **eskolatua**: mundu-itsuskera **hesolatua**.

(guztiz hesolagabea ona al da?) (non ote neurria?)

HIRUGARRENA

JAKINDURIATIK JAKINTZARAKO BIHURRERA

Munduan gertatu da eta gertatzen ari da Jr>Jz: **jakinduriatik jakintzarako bihurrera bat oso bihurria**. (Santiago Auseron-Arte sonora: “teknologia berrien mende geratzen den musikariak nahastu egiten ditu artea eta kalkulua”)

Bectsolari gogo-irenduak dira lotsagarriro dabiltzanak zientzialarien ondoan bufoi edo pailakantari moduan.

174 txakurrak ez du ezer egiten///// beak esan al dik? (bai, ingelesez gainera!)

175 jakintzak diren gauzak dakizki; **jakinduriak** diren eta ez diren gaietara aditu eta igertzen/antzematen die. **Jakintzak** gehiago daki (den-ki, gauzatuki, faltsuki), eta hargatik zegoen mundua prest jakinduria zaharra bazterrera utzi eta jakintza bere altzoan hartzeko.

179 probatu eta jakin >>>>>jakin eta frogatu (aurreak erakusten du atzea nola dantzatu)

182 sentikidetza bete-betea-enpatia (sentikidetza, hitz polita,...)

183 e-gogo zaharretik, trinkoki: hemen **gaiak** (sendatzekoak, jakitekoak, esatekoak) dira direnak eta ez direnak; gaia da dena eta ez dena: alde batetik, izenez dena, eta, bestetik, izenez ez dena edo esistitzen ez dena edo deskribasmaturik ez dagoena.

184. **Jakinduriak aditzak** ditu maite **jakintzak izenak** bezala. Zer gertatzen da? Da galdera; sendatzeko barrutian: zer gertatzen zaizu?; edo.. zer gertatu zitzazun? (hemen ere badago gaia, aditzak eta izenak)

186. Arriyak negar egin lezake. (ez al da izerdia izanen?)

192. GEURE IPUINA “**jakinduria** erne edo loratu zenean, dena eta ez dena hurbilago zeudekeen elgarretarik, eta direnak eta ez direnak ere bai; **gaiak** gaiago ziren, eta gauzak zer esanik ez. **Jakinduria, orduan, erraza zen: antzematea, jakiletza eta sentikidetza errazak ziren.**” (fossilizatu egin da jakinduria)

Hau da gure gogozko ipuina, ez oso mitologikoa eta ez batere zientifikoa. Ipuinaren hasiera da, hobeto esanda. Gero ez dakigu zer gertatu zitzaien hurbiltasun horri, zeren **gure jakinduria jakintzaren sasiak jan samartua baitago**, eta

193. Emakumea belarren zalegoa, eta gizonezkoa zuhaitzen zalegoa; hura behera begira eta txikirako, eta hau gora begira eta haundirako. Bitaratze hau ez dago hola ta-hola errenditzerik.

194. **Obeditzea** (gogoz irenstea) da aditu eta **jakintsu** bihurtzeko aurreneko urratsa. Aldaketa/aldatzen edo borroka honetan zer/zein da ezjakina? Haientzat, ezjakina zen benetako erlijioaren altzoan etzaten ez zena, **eta ezjakina da zientzia agintzailearen DAKERIARI entzungor egiten diona**. (gizartean gora egin nahi duenak obeditu egin behar du, hala da)

195. sexu-aldaketan: “Nik badakit zer naizen, eta hori norberak baino hobeto inork ez daki”.

(Norberak baino hobeki **inork** ez daki !) (Neronek egiaztatua dut zenbat jende dagoen norberaz “dena” dakiena, norberak baino gehiago, eta juzkatzen duena, jakina, eta nola).

Gauzak & gaiak (bast-en adibide batzuk)

AULKIAK

-Hitzaldi edo bilera bat dago eta aulkiak daude eseritzeko. Aulkiak ez daude izendatuta, iritsi ahala hartzen ditu jendeak. Esergaia hartu eta eserleku edo esergauza bihurtzen du ordu betez edo biz, bilerak irauten duen bitartean. Aulkia libre geratzen da berriro, esergai bihurtuz, eta hamaika aldiz erabil daiteke horrela, aurkia hondatzen den arte.

FUHRER

-Hitz hau entzun eta gehienbat Hitler etortzen zaigu burura. Agintari aleman ahalguztinahiduna.

Hitz horrek, berez, “buru” edo “gidari” esan nahi du, ez besterik. Adibidez, gidari turistiko bat fuhrer bat da. Baina zer gertatu da hitz honekin? Gai bat izatetik gauza bat izatera pasa dela. Kutsu jakin bat eman zaiola, eta gai hori erabiltzeko ikaraz gaudela, kutsu horren eraginez. Zein da zuen familiako edo koadrilako fuhrer-a, burua edo gidaria? Edo kaudilloa?

Zer esan *ekin, eta, jarrai* hitzei buruz? Kutsu politikoa eman zaie, baina berez, ekin eta jarrai, Euskaltzaindiaren goiburua da.

ENGLISH

Eman dezagun ingelesa ikasten dugula Deustuko Unibertsitate entzutetsuan edo Cambridge edo Oxforden. Eta ikasten dugu esaten “I speak english”. Kaleko eskale batek txanpon bat eskatzen digu eta esaten digu: “I speak english”. Bi esaldi horiek berdin-berdinak dira. Ez dago inongo alderik bien artean. Gaia bera da bietan. Gauza zera da, unibertsitarioak ustea duela, bere ingelesa hobea dela. Gaia gaia da.

Era berean, matematikan ez da errege-biderik, denontzat da berbera.

OTOI

Otoi hitzaren parekoa *arren* da. Otoitz hitza kristautasunarekin lotua dukegu. Aitagurea dukegu otoitzik otoitzena. Berez, *otoi egin* da arrenka eskatu, erregutu, otoitzu. Eta orobat, *otoitz/otoi egin* da errezatu.

Otoi hitza erranez, edozer eska diezaiokegu edozein goikori. Edo behekori.

Otoi hitzaren *gaia* edozer/edozein da, nahiz guk gure kulturen *gauzatua* ikasi dugun kristau adieran, gehienbat.

KONPOTA

Segurolak aipatzen du nola konpotazalea izan den oso. Eta konpota gabonetan bakarrik jaten zutela etxean. Ez zuen ulertzen zergatik. Berak urte guztian jan nahi zuen. Konpota gabonetako *gauza* bihurtua zegoen, eta berak urte osorako *gaia* ikusten zuen sagarrekin egindako jaki horretan. Urte osorako konpotadora nahi zuen, eta ez gabonetako konputadora.

BALOIA

Geldi dagoen baloia gauza bat da, gauza borobil bat. Dabilen baloi bat gaia da, golgaia. Gola sartzean, sare ondoan geratzen da, atezainak hartzen du eta gai bihurtzen du berriro, jaurtitzen du luze, berriro golgai.

UMEAK

Umeak eduki eta *gauzatat* hartzen dira maiz, jabetasun gisa, baina umeak *gaiak* dira, gai biziak, eta aldatzen joango dira, bestelakotzen, aldentzen, hurreratzen,...zahartzen...

HORI SASOIA

Sasoiko jendea erraz, arin, osasuntsu ibiltzen da, bai lanean, bai kirolean, bai zernahitan. Txirrindulari gazte bati buruz “sasoia latza” zuela erran zidan lagunak. Baina, *sasoia* hitzak badu beste adiera bat, garaia, aldia, *-rako sasoia* eran. Sasoia joan egiten da, mugatua da, ez da betiko izaten. Zaharran ahotan maiz esapide hau: “orduan bai sasoia!!”. Beti gazte izanen dela pentsatzen duenak, sasoi hori *gauza* bihurtzen du, eta beti gazte ez dela izanen pentsatzen duenak tentuz erabiltzen du *gai* hori, gorputza erabat hondatu gabe.

GUREA JOAN ZEN

Bizia amaren sabelean hartzen dugu eta heriotzean uzten. Bizia. Bizia *gaia* da, eta gure gorputzetik aldentzean, gu gorpu geratzen gara, *gauza* eginda. Hilobirako. Biziak iraun dezan geroan, ez gure gorputzean, baina bai munduan, modu bakarra dagoke, seme-alabak izatea, ondorengoak uztea. Ernalketa gertatzean, bizigaia hor doa umekira, eta hortik, ondo bidean, umea. Gurasoengandik bereiz. Nahiz haien antz pixkat edo puxkat izan.

URTEBETETZEA

Askok hori entzun eta zorionak zuri kantatuko dute, “urte askotarako” erranez urteak bete dituenari. Baina ezin da urtebetetzea horretara mugatu, gauzatu. Erran berri dit batek “urtebetetzea” bertze zerbait dela berarentzat, hil eta ondorengo urtea betetzea.

Hitzak dio (urte betetzea), hori du *gaia*; baina guk, nahita edo nahi gabe, *gauza* bihurtzen dugu, ospakizun alaia eginez, edo ospakizun ez-alaia eginez.

Urtebetetzeak *urtea betetzen dela* dio, ez bertzerik.

MICHELIN IZARRAK

Sukaldari entzutetsuenen artean banatzen dira Michelin izarrak, aldiro. Sona handikoak dira. Eta izarra jasotzen duen jatetxeak ospea izaten du, ona. Izar horiek *gauzak* dira. Sukaldari ez mitxelinizarziale batek, hau erran zuen ez aspaldi: “Michelin izar guztiak gure amonenak dira”. Gure amonengandik dator sukalderako jakinduria hori (emea) eta haiek emana zaigu *gaia*, batzuek gauzak lortzeko erabiltzen badute ere (meriturik kendu gabe). Ikasgaia emakume haiengandik dator, gehienbat.

LEARNING BY DOING

Egundoko berritasun gisa aurkeztu ziguten “learning by doing” gauza hau. Eta ez al da ba, gure amonak eta beste askok erraten zuten “eginez eginez, ikasi” hura? Lehendik datozkigu gaiak, ikasgaiak, eta batzuek, modernoek, gauza bihurtzen dituzte, zelofanetan bildurik, salgai.

HEMEN ZETORREK TONTO FALTEA

Hori esan zidan behin baserritar batek, baserriari buruz galdetzean. Jende asko etorri zitzaiola baserria erosi nahian (etxebizitzaren diru-balioak gora ta gora egin zuen garaian izan zen). Baserria gauza gisa ikusten zuen jendea, ez gai gisa. Denak lixtoak (lixtomendikoak, Seguiolaren hiztegia erabiliz) dirua egin nahian, eta tontorik batere ez. Hortik “tonto faltea”. Hortik gauza sobrea eta tonto faltea. “Hemen zetorrek tonto-faltea”. Gogoan iltzatua geratu zitzaidan.

MAITE ZAITUT

Bi hitz horiek *gaia* dute polita, maite zaitut, zer esan nahi du? Denok ulertzen dugu, baina hori *gauzatzen* hasten garenean, zehazten, orduan sortzen dira komeriak.

ARKEOLOGIA

Arkeologia ikasleak liburua izaten du. Hor dakarrena ikasi behar izaten du. Baina arkeologia aurkikuntza bat egiten den bakoitzean, liburuko gaiak osatu eta aldatu behar dira, egokituz eta gaurkotuz. Liburua etengabe berritu behar da, zerak aurkitu ahala, eta beraz liburua zahar geratzen da, *gauza* eginik, eta bertze edizio berriago bat atera beharra dago. Euskarri digitalak erraztasuna ematen du edukia berritzeko, inprentako lanik hartu gabe. Beti *gai* dago, *gauza* izatera heldu gabe, papereratu gabe alegia.

REX NUNQUAM MORITUR

Erregea ez da sekula hiltzen. Hau da, erregea (*gaia*) ez da sekula bukatzen, nahiz eta erregea/erregina zendu (*gauza* bihurtu). Erresuma Batuan, Elizabeth II.a izan da erregina (*gai*) eta orain gaitasun hori Charles III.ak dauka (*gai*). Show must go on. Gaiak aurrera egin behar du. Gauza bertan geratu arren.

Hirugarren partea: 3

Hitz batzuetatik noraino?



199. or.

Ez gaude “diren gauzak” ikusteko, eta bai “diren eta ez diren gaiak” **aditzeko**. (ez gara alferrik ibili luzaroan e-gogo zaharra zukutzen!) **(aditu ondo!)**

ETSI

200. or.

Etsi da gaur gauza bat, baina extinct-aurrean zen eta da (neure belarriarentzat behintzat) beste gauza bat, gaiagoa.

(...)

Erdarak itotzen gaitu eta erdal-euskara (artxi) batuan etsitzea, etsipena, etsigarria eta abarrak txarretik bakarrik dira hartzen gaur, zergatik eta hargatik. **Etsitze ona dago biziberritu beharra**. Aditu diezaiozun geure barruko belarriari, zeinak baitio *etsi al duk Bilbon?* Hau da: laketu, gustua hartu, ederretsi, konformatu. Etsipena hartu: bat aukeratu (neronek entzuna). Leitzan jaso: *Tolosako yoan-etorrie ein dugu, ta etsie artu*: gustura gelditu. Pertsonak bezalaxe, abereak ere behar du *etsigarri bat* (Axular): laketaraziko duen zerbait (*bere leheneko usatua edo etsigarri bat bedere izan gabe*). Hildakoaren senide eta adiskideei esaten zitzaiena garai batean: *etsi!* (laguntzen dizut nahigabe! Eta horiek baino lehenago): gaurko “onarpena lantzea”. **Etsitzea bide bat bukatzea da**, gogozko edo egitezko bide bat bukatzea eta hor gelditzea (lasai-gozo edo ilun-artega: berdintsu dio e-hizkuntzatik –ez mundutik).

[Lankide ohi batek erran ohi zuen eguneroko lana eraman ahal izateko behar zuela “un seose”. Zeozer bat alegia, zerbait, aringarri bat, bizigarri bat, ... eta konturatzen naiz hark erran nahi zuena hau zela: **etsigarri bat!**]

202. or.

E-profetak ez zekien euskaraz. (Gure eginkizuna da, besteak beste, harriaren mintzoa (eta bere profeta edo interpretatzailearena: igarle edo hotsegilearena) euskarara itzultzea, euskara gogotik eta e-gogotik (antzinako/noiznahikotik) berrikasi dugularik. Horrentantxe ari gara.

210. or.

Gaitzera gatoz. Gaitza ere bada “haundia”, ona bezalaxe. Pilotari gaitza, diru gaitza edo gaitzeko pilotaria, gaitzeko dirua. Ez al zaigu aurrerago diru ona atera? **Ona eta gaitza** gauza bera al dira? Ona eta gaitza gai bera al dira? Bateratu egiten al dira? Elkarren berdin egiten dakitenak al dira bi-biak? Zer da hau? Harritzekoa al da gero on-gaitzen gurutzatze edo berdintze honekin, ez antzematea zer komeni zaigun?: harritzekoa al da ez antzik ematea zer erran behar dugun munduaz eta bere on-gaitzez? E-hitzak ari zaizkigu, beren soilean eta gorrian, giza nahasmendu oinarritzkoenetako baten aztarrenak ateratzen.

[Erosi zaizkion beraz porru zonbait. **Untsa txarrak** haatik, besterik ez baitzuen, **untsa txarrak** lehentxago erosiak zituenen aldean. Porru txar-txar eihartu batzu] *bele xuriak* –jean battitt dirassar. Guk: untxarrak?

Ama gureak: “Ondo gaizki neok”

210. or.

Orduan, zehazte edo dengauzatze aldera, zerbait izatera jarrita, gure munduan den **dengauzarik dengauzatuena** izango da, edo bukatuko du izaten: jabetasuna eta, beraz, **dirua**. On-beharrez ari denak on egin nahi dizu eta ondare bat geldituko zaizu eta ondasuna eskuetarako dizu, huraxe baita on-izate neurgarri eta dengauzagarri garbiena: jabetza eta diru zikinez egindakoa, hain zuzen ere.

213. or.

Oroimenari leku bat, eta oroiminari. “**Gure Iñaki, gaxo ez danien geixto**”. Hamaika bider aditu izan nuen. Gaixoak gaiztotzen ninduen ala gaiztoak gaixotzen? (...) nahasmendu gaitz batek bizi du mundua. Epaileak ezin ebatzi du auzipetuak ez-egitekoa gaiztoz egin duen ala gaixoz; gaiztoa ote den bihotzez ala gaixoa buruz, edo zenbatsu duen batetik eta zenbatsu bestetik (azkeneko hau arimako gaitzen neurtzaile/diagnostikatzailerik baten laguntzarekin).

[Neu ere halatsu!] **Gaxo askotan egona, beheraldietan, eta gaiztotzat hartua, aldi luze amaigabetuan.**

223. or.

Batzuetan pentsatzen dut askok (orok?) daukagun **azpi-azpiko trixtura edo belztasun hori** (gain hartzen diguna boladatan, baina bestela mendean edukitzea komeni dena), pentsatu ez, duda egiten dut ote datorren **bizia lan-karga** moduan sentitze edo hartzetik, ala datorren **bizia erru** moduan sentitze edo hartzetik.

[nekez bizi ala errudun bizi, edo, nekez eta errudun bizi] **zergatik ez ote gara bizi errez eta errugabe?**

Beharra eta goganbeharra. Beharra edo/ala goganbeharra, hobeto esanda. Oihenartek jasotako esaera hartzen dut gidari: haur duenak anhitz behar, eztuenak gogoan-behar. Guraso bihurtu eta umeak ekartzeaz ari da hor e-gogo hitzuna, baina asko zabal liteke hori zernahi gisatako bizi-gauza eta bizi-gaietara; honelatsu: edo **beharra**, aritzea (honetan, hartan,

direnetan eta ez direnetan), edo, bestela, ez aritzea eta ez egitea eta, orduan, **goganbeharra**, kezka, errezeloa, gogoetatua egotea eta burujana; edo bizi, bere betekada eta kargarekin, edo bixi (esistitu), gogo-betekada/-kargarekin eta gogoko har gaizto batekin; edo ezbehar batzuekin, edo onbehar gizen batekin.

LOR/LORTU, NEKE/NEKATU

Gaur bizia edo bizimodua “gauzak edo helburuak **lortzea**” da, eta jakitea komeni da, euskaratik, **lortu** dela, berez, **zerbait arrastaka garraiatzea eta bereganatzea**, eta hortik gaurko esanahi gailenera higiturik, iristea eta erdiestea, baina oso garrantzizkoa da sentiaraztea, e-belarriz, lortzeak beregan daukan zorigaitza, eta ez bakarrik saiatzeak nekea edo karga dituelako berekin, baizik-eta, barrenagotik, lortzea, alde behintzat, badelako lor bat edo zorigaitz bat. (Dengauzatzearen zorigaitza edo, e-gogo zaharretik aditurik.)

(Gaur bizia edo bizimodua “gauzak edo helburuak lortzea” da. Bai, hala da. Umetan eta gaztetan eskolan helburua nota onak ateratzea da, horrekin titulu bat lortzea eta horrekin lanpostu bat, eta horrekin, dirua, eta horrekin jana eta bizitokia, eta horrekin familia. Eta horrekin umeak, eta...

Zer erranik ez, lan arloan: dirección por objetivos direction par objectifs DPO MBO management by objectives [Hiztegi terminologikoa] [2002] es fr en **helburuen araberako zuzendaritza, helburukako zuzendaritza** dago.

Enpresetan, jarritako **helburuak bete behar dira**, edo saiatu behinik behin.

Erretiroa edo jubilazioa heltzean, hor ez dago gehiago helburu horiek bete beharrik. Helburuak bertze batzuk dira: osasuna zaintzea, familia zaintzea, ikastea...

Eri handi batekin ospitaleraturik, **helburua bizirik irautea da**. Hor inori ez zaio eskatzen langile ona eta produktiboa izatea.)

Zer gertatzen da **ume bat down syndromearekin** jaiotzen bazaigu? Buruan geneuzkan helburuak kendu eta bertze apalago batzuk jarri behar ditugu, adibidez, **zoriontsu izan dadila**. Edo laguntza egokia izan dezala.

Lorpenak bere baitan ditu lorrak eta penak. (...) Munduak lortzea ‘zoriona’ dela; e-hizkuntzak haren ‘zorigaitza’ erakusten. Nik esan behar banu, lorpenak “zirigaitz” bat sartzen digu.

(hemen gogora datorkit Gabriel Kortak erraten zidana: **inork ez du irabazten!** Alegia, azkenean denok leku berera goazela eta deus ere erdietsi edo eskuratu gabe, gainera.)

(...)

Nekeaz eta nekatzeaz segidan. Unatzea edo akitzea ulertzen dugu gaur nekeaz eta nekatzeaz hitzegiten delarik, baina hori baino lehenagotik **euskaraz nekea zen atsekabe/pairamena** eta lana (nekezari eta nekezale-k ‘langile’ esan nahi zuten berez, hitzaren adierazkizuna “baserritartu” baino lehen).

[ijito andaluzek **fatiga** hitza erabili izan dute neke/atsekabe/pairamen hori adierazteko].
(gaztelaniaz gaur fatiga lotzen dugu lasterka egitean izaten den arnasestuekin adibidez, baina

extinct-aurreko –atzoko- gaztelanian **atsekabea, pairamena** erran nahi zuen, **nekea**) (nekea eta fatiga kide dituegu)

E-gogo hiztunetik aditurik, **nekearen** eta nekatzearen zuztarretan **atsekabea eta pairamena** daude, baina ez edozer moduz, baizik-eta **lanarekin estuki lotuak**. Haratago, eta emandako hitza hautsi eta etim-7 moduko batera geuire buruak erortzera utzirik, heriotzaraino gara erortzen. E-hitzaren iturburuan omen dauden latinezko *nex* eta *necare*-k heriotza eta hilketa adierazten dituzte. Atera egin gara euskarak dioskunetik, baina ez zeharo, zeren ateratze/ateraldi horrek erakusten baitigu lanaren haurrideak eta arbaso arrotzak zer leinu beltzetatikakoak diren. **Lana, e-gogo hiztun atzenduan, heriotzatik eta hilketatik dator.**

Creation is here and now (hemen eta orain sortzen da hizkuntza)

[hitz egiten dugun aldiro ari direla hitzak sortzen...alegiya]

218. or.

Besterik zer diosku hizkuntza gureak **anbi-gauzaren** inguruan? Eta hizkuntzak **aiher** hitzari begira jartzen gaitu. Aiher izatea da joera edo eraspina izatea, **maite izatea**, prest egotea: eztiari anhitz baitzaika aiher (Axular); aiher dira zernahi errateko eta egiteko (Hiriart Urruti). Eta aiher izatea da orobat gaitzestea edo **gorroto izatea**: korintioak hain zeizten aiher alferrei (Axular); unhaia aiher unhaiari (Oihenart). **Maitatu eta gorrotatu!** “Nola liteke!”, galdegiten du errealitatean inuxente bizi denak; eta “ezin liteke?” dio errealitatean arinki daukanak jarria bere uste on edo sinismen betea. Gu hizkuntzak argitzen gaitu; ez dakigu munduan ibiltzen laguntzen digun, baina argitu egiten gaitu e-gogo hitzetaratu honek.

Hauxe da giltza: **aiherra da joera edo ixuria, da etzantasun edo sentimendu bat, baina on-gaitzik edo on-gaitzerakorik bereizi gabe**; on-gaitz horiez haratago edo honatago. (On-gaitzak zorrozki eta erabat eta beti bereizte hori oso dago gaingoretsia munduan; ari gara ikusten.)

[*Ona egin du horrek!* espresioan **ona** horrek *txarra* erran nahi du]

Niri Bianan denak zaizkit aiher, batzuk neure ongira eta bertze batzuk neure gaizkira (en Viana todos me quieren, unos bien y otros mal) P. Antoñana.

219

Itsutzeaz eta itsumenaz ere hitz egin beharra daukagu orain gauden hitzezko **harrespil** edo **hitzespil** honetan. Bitarakotasunarekikoan. Itsuak ez du ikusten, baina e-gogo hiztunean bi eratakoa da ez ikuste hori: edo batere ez ikustea, edo gauza bat besterik ez ikustea. Anbiguitatea ere gertatzen da maiz hizketan. **Itsutua** egotea orotara, edo *emaztetan itsutua dagoen bat* (Axular) dagoen bezala; itsumena edukitzea orokorra edo *edanerako itsumena duanak* (Agirre Asteasukoa) daukana bezalakoa. Emazteengana edo edanera ukan liteke itsumen bat, haiei bai baina beste ezeri ez begiratzea dakarrena.

Batere ez ikusteak ez du mixterio haundirik. Edo bai, baina ez hitzespil honetan. “**Bat besterik ez ikustea**” da oraingo jardunean dagokiguna. **Itsutzea** pertsona batekin (“maitasun erromantikoa”), sinismen edo ideia batekin (“fanatismoa”), eta hola.

(...)

Itsumenaren edo itsutzearen kontrakoa **argitza** da, eta argitza, beraz, **ez itsutza da**, baina bereziki **ez itsutza ezerekin**.

[hemen lotura egin daiteke **itsutze** eta **gauza** artean. Eta bide batez, **argi** eta **gai** artean.

Adibidez libertatearen zaleak gara, eta libertate hori defendatzeko bide bakarrean itsutzen gara, gauza batean. Libertatea gaia da, librea berez, eta ez du onartzen gauza batera errenditua izaterik. Politika, erlijio eta pertsonekin gerta ohi da. Politikan eta erlijioan hierarkia batek agintzen eta inposatzen du, gauza egiten du, ideia bat. Eta gauza horretan laketzen ez direnen aurka doa gaitzespena: Bertso satanikoak, militante disidenteak, pertsona desleialak,...]

[Oteitzak berak errana da herria maite duenak “ideal handi bat” maitatu behar duela eta horren azpiko gorabehera guztiak pixka bat ahaztu; hau da, gaiari begiratu behar zaiola, ulertzen dugu guk, eta ez gauzari.]

230. or.

Goietan ortzia edo urtzia dago. Gero gogo mindu jainkogin edo jainkozaleak Ortzi edo Urtzi jarri zizkigun ortzian edo urtzian, **zerak nortuz**. Ezin etsi izate arruntarein; izaki gizena behar han goian.

Jainkoak, jainkottoak, jainkoñoak hartu zituzten eta, behea utzaraziz, goietan ezarri zituzten, eta dena (den-a, Den-a) argiagoa izan zedin, “**jaungoikoa**” asmatu zuten. Orduandanik, zenbat-eta goikoagoa edo goitarragoa den edozer/-nor, orduan-eta hobe, beteagoa eta nahigarriagoa.

Bide batez, cromlech/harrespil/barrunbea ere bazterretsia bezala gelditu zen: behea eta barrua uztartzen zituena ezeztaturik.

(...)

Guk ez genukeen sekula jaungoikorik egingo (eta andregoiarik ere ez, badaezpada).

(andregoiarik ezaz feministek zer ote diote?)

(...)

Txoriak ez dira izaten goitar hutsak: goi-behetarrak dira. **(ezbaikariki ari dira, Seguiolaren hitzetan)**

237. or.

Guk landu/menderatu ez duguna da “sasi-“ edo “basa-“. Sasia eta basoa (lehen-lehengoa) ez ditu gizakiak bere erara moldatu; ezta larrea eta astoa ere (lehen-lehengoak). Guk landu gabea “landugabea” da bere izatez; guk eskuperatu gabea motza da eta gabea. Horixe da gure harrazoiak diren-eta-ez-diren gaiei egotzen dien bekatua. (Gure gauza-munduratzeko eta gainbehera espiritualaren fruitu harjoak egoki jaso ditu e-gogo hitzun berriak.) **(sasia eta basoa burujabe)**

239. or.

Jendea uztartzen zen elkarrekin, gozamen eta berotasun bila. Horixe bide zen “**ezkontza**”, eta ez besterik. Hura izorratze aldera, dakizaketenek deitu zioten “sasi-ezkontza”, adieraziz bezala ez zela arauzko edo legezkoa, eta orduandanik gure gizamundu ofizialeko buruz buruko lor indarreangoa gelditu zen (sasitu eta basatu gabeko) “ezkontza” izenaren **jabe bakar**. (hau maiz gertatzen da arlo askotako hitzekin: **demokrazia, bakea, maitasuna,...**)

239. or.

Bizia higitze bat da (esan daitekeen gauzarik arin/exerexena da), gogo edo gurari bat, ezak eta gabeak darabiltena: behar bat, min bat, beraz. **Mina gogoa baita** e-gogo hitzunean: jakin-min, ikusmin, ezkon-min, gizon-min (‘gizon-gose’) eta holakoak aspalditxotik daude esanak hizkuntza honetan. (**jakin-min=jakin-gogo**)

E-min batek egiten dioke bultza argira liburu honi ere.

Esana ere dago (16. Mendean): **haren minez orai nago ezin hilez bizirik** (Etxepare); *ni aren minez ilten nintzan* (Lazarraga). Hiltzeari kontrajartzen zaiona (“bizia”, noski) min bat da: eza eta gogo/guraria aldi berean: “norbaiten/zerbaiten mina”. (Gogoa eta guraria, ezetik: biziaren beraren zotz hezetik.) (**haren minez orai nago... ezin hilez bizirik**)

246. or.

Gizartean edo jendartean ez dago gauza onik; edo on-onik ez behintzat. **Gizartea ez da lagunartea**, eta horixe da gaitzaren zuztarra. Lagunartea da lagun izatea eta laguntzea, eta laguntzea da, jakina, ondoan egotea, dela egote hutsez, dela ibiltzez, dela aditzez edo dela egitez. Laguna da laguntzen duena (adiskideek, ezkontideek eta ahaideek edozer egin dezakete): honetan, horretan, bizitzen... laguntzen duena; etxeraino laguntzen duena, edo etxea egiten laguntzen duena, edo lo hartzen laguntzen duena. (**gizartea ez baita lagunartea, otsoartea baizik**)

248. or.

“**Lagunabarrean**” zen, extinct-aurreko hizkuntzan, berdintasun batean, orobatasun batean... bizitza, jaztea, ibiltzea. Holaxe dago jaso euskarazko oroimendegian. Lagunabarrean: besteen pare, nabarmendu gabe, atentziorik eman gabe. “Lagunabarrekoa” da batezbesteko hein batean dabilena edo etsitzen duena; Azkueren hitzetan, “edonogazkoa eukitekoa”; hau da: argia, lagunkoia, lagunkina, lagunartekoa, baina lagunarte/jendarte “osoa” harrapatzen/besarkatzen duelarik eta hantatzen bereizkunderik egin gabe; Axularrentzat **arronter** zena (guztiekin adiskide, arronter eta solhasturi). (**hitz polit bat ikasi dut**)

250. or.

Basunibertsoko Zulobeltzagan bezalaxe, hemen behean ere, itxura dagoenez, sortzen zaizkigu giza-neurriko **zulo beltzak**, argi guztia erakarriz ilunpe lodia dagitenak. (**baietz uste nik**)

253. or.

Emakume hau (Karmen Gabilondo), nonbait, hiltun irekia da, eta hitza sekula inori ez ukatzearen aldekoa, ezta berari agurra bera ukatzen diotenei ere. Eta berak eman ohi duen ararzoia hauxe omen da, hitzez hitz: “berbia ez da guria, berba eñ eñ bihar da”.

(hitza etorri dator, eta joan doa, ezta?)

255. or.

Adimena da jatorra eta umila izatea, zeren aditzen den gauza/gaiari utzi behar baitzaio bere **bidea egin dezan** geure bihotzetaraino, batere eragozpenik jarri gabe, hura -gauza/gaia-bortxatu gabe, moldatu gabe, bihurritu gabe geure ideia eta epaietan kabitzera. Bortxatze/moldatze/**bihurritze horrek galarazten du aditzea**, adimena, ulermena, eta dena. Hor jaiotzen da tontoa. Tonto garbia eta, bereziki, **tonto axkar/pixkorra**: mundu gor/gogorrarekin gozo uztartzen den gizaki gorra, burugogorra eta deusi bihotzeraino sartzen uzten ez dion bihozgogorra. Gizartean gora iristeko tonto axkarra izan beharra dago.

(eta oso axkarra ere!)

258. or.

Jakitea bai, baina “maitatuz jakitea” (oroit *mattatuz jatia*). Jakitea bai, baina “ondo jakitea”, zeina baita gauza bat esaten ez dena, hitzetara etortzen utzi ez zaiona. Ez dago ondojakinik: dagoena askojakinak dira, hots, jakintsuak; dakitenak, baina ez ondo, baizik-eta “zehazki”, “irizpidezki”, “logikoki”; hau da: trakeski (Einstein: “ez dago bide logikorik”; dagoena “sentibarrentzea” da. (ondo jakin dezagu, beraz, nahiz gutxi izan)

(...)

Jakin, ez dago ezer jakiterik eta ez dago inor jakiterik. Hemen dago giltza. Ez da jakiten zer-/norbait. Hizkuntzak salatzen du: ezin esan liteke *badakit harria* edo *psikologoak banaki*. Gauzak ez dira zuzenean jakiten. Ez da jakiten zer-/norbait, baizik-eta “zer-/norbaiten berri”.

(Horren berri badakigu! ;))

261. or.

Beharbada, jakintza guztia, bere bi adar nagusietan (erlijioan eta zientzia), atso-beldur batetik dator. Jakinduria eme zaharrak eragindako izutik eta izu hura harrazoiz zanpatu/gainditu beharretik.

(gogoratu *harrazoi= arrazoi harroa dela Segurarentzat*)

262. or.

Beti famatu izan dugu **herria eta ez hiria**. Geuretikkeria batetik ari gara eta buruginak gara horretan: nongoa izan eta hura goretsi. Politikoki, herri-sareen aldekoak gara eta hiribururik ez egotea dugu aldeztzen: “**hiriburuaren kontra, herri-bihotza**” leloaren asmatzaileak gara (halaxe etorri zitzaigun-eta). Atzerapenaren eta desgarapenaren alde gaude. Herriarekin bat egitea nahiago, beti hiriarena jotzea baino. Ez dugu oso herri-koiak izaten asmatu, egia da, baina

hirikoiak ezago. (euskal hiriaren ipuin polita tokitan geratu da!) (hiriak bete ahala, inguruko herriak hartzen dituzte gerrian, hiri gizenagoak egiteko).

Argi-azti-adimenak garbiagoak dira herrian, eta harrimena ere bai: bereziki, **harrimena**. Hirian harrimena baitago larritxoa, harrimenari biderik uzten ez diona. Hiria jendetsua da eta, beraz, nabarmendu (gogo-harroto) beharra haundiagoa da ezinbestean: hona ni! Adierazi beharra : honanismo hirikoia. (“Bisibilizatzea”, bi bider zibilizatzea; “ikusgarria” izateko beti ikusgarriri ari beharra. Eta abar.) (onartu behar da hiriak berritasun asko ekarri ohi duela)

Hemen egiten ari garena egiteko behar dugun argia ez dago hirian, zeren han dagoena distira baita, eta ez argia. **Distirak argia jan egiten du**. (gutziz bat nator, hirian ezer gutxi dago guretzat)

285. or.

“Zakarra” da, neure hizkeran adibidez, diruaren izen eufemizatueterik bat. Mogelen esaldi aitatu berria “zakar ederrak hartzeko” eran berridatz/berrerran ote liteke? Nekez. Zakarra eta ederra ez dira ezkontzen; dirua eta ederra bai. Zera bera bitarik edo bitara. Diruarekiko – gaiaren gauzatzea hobekienik zenbatzen duen zerarekiko- anbigotasun edo bitarikotasun/bitarakotasun gurea. (zakar ederrak!)

(...)

*Ezin utz genezake emeki hitza deusik erran gabe. Eme-ki edo “emearen gisan” da eztiki-eta-apurka/geldiro. Axular: mintza zakitza emeki eta emero: sua iraungiko da, gaitzerizkoa iabalduko da. **Gauzak emearen gisan egitea (...)** kontrajartzen zaio, (...), suari eta gaitzerizko edo gorrotoari. Eta sua eta gorrotoa dioenak gerra eta zapalketa dio: Historia dio. Historia ez da emea edo emetasunezkoa izan; ez da alukeriaren jokalekua izan nagusiki, baizik-eta zakilkeriarena eta gizonkeriarena. Eme-ki eta eme-ro egiteari uztearekin hasten da Historia izeneko ixtorio ilun hau.*

(eme gaitezen bada, gaitzerizkoa kentzeko)

295. or.

*Esanak gaude: ez dago/zegoen gurean gauza onik eta txarrik berez, baizik-eta **gauzak onetik edo txarretik harturik**. Armonia onean esaten hasteak armonia txarrean esateko bidea libre utzi zuen eta, ondoren, **armonia** gelditu zen txarrerakoan gatzatua.*

313. or.

Besterik uste bada ere, **jakintza** (hala zientziazkoa, nola erlijiozkoa) **askeagoa da literatura baino**, zeren literaturak *egiantzekoa* izan beharra baitauka, eta jakintzak ez, eta, bidenabar esanda, ezta munduak edo errealitateak ere. (Big Bang-aren teoriak edo Bibliako Hasierao liburuak ez daukate egiantzik, baina literaturako pertsonaia bati gertatzen zaionak egiantzekotasun batean kabitu beharra dauka eskuarki.)

aski

Zezena eta uhinak (olatuak)

(**Zezenari** begira jarri dira batzuk; **uhinei** beste batzuk. Bagoaz itsaso metafisiko batera eta surflari egiten gara hor; bagatoz larre espiritualera eta errekortarien erara jartzen. Nondik etorriko, zer joera aterako. Bixi-arin. Baina ez: **zezena irendua aurkitu dugu larrean, eta itsasoa zapala**. Suharretik eta haserretik peto. Ez dago dantzarik. Dagoena “ibilbide” bat da, eta lasaitasun gehiegi; jardunbide bat, prozesura bat, algoritmo bat gure gogoan, gure gogoetetan.)



celtiberia.net

errena (nafarroa) cromlech edo harrespil

QUOUSQUE TANDEM...!

OTEIZA

7^ª edición
A LOS 56 AÑOS CON


PRÓLOGO A ESTE LIBRO YA INÚTIL
EN CULTURA VASCA TRAICIONADA



ENSAYO DE INTERPRETACIÓN ESTÉTICA DEL ALMA VASCA
con breve diccionario crítico comparado
del arte prehistórico y el arte actual



Delante, un día, de uno de estos pequeños **cromlechs** en el alto de Aguiña, preocupado por entenderlo, pensé en mi desocupación del espacio y repentinamente comprendí todo lo que aquel círculo vacío significaba. No sería fácil medir mi emoción al usar una estatua que durante tantos siglos no había vuelto a ser utilizada. Coincidió con el propósito espiritual del escultor prehistórico de estos cromlechs. Era exactamente mi escultura metafísica de mi conclusión experimental reciente. **Las piedras no estaban colocadas desde la realidad sino en contra de ella, desde una conciencia metafísica definida en el espacio.** Antes, desde lo figurativo, el cazador mágico del paleolítico sujeta la imagen del animal (el bisonte-historia) en sus pinturas rupestres del interior de su refugio material. Ahora, desde lo abstracto, en este cromlech neolítico, **inventa el artista**, en el mismo espacio exterior de la realidad, **la habitación para su raíz metafísica, la intraestatua —almario—** su intrahistoria, que diría Unamuno. **El hombre se ha puesto fuera de sí mismo, fuera del tiempo.** Solución estética —razón religiosa— de su suprema angustia existencial. (Suspensión). **Quosque tandem (Jorge Oteiza)**



(Iban izagirrearen irudia, 2020) Cromlech/harrespil ixil-biribila hitzataratuko luke liburu honek, alde behintzat. Denera eta ez denera zabalduko gaia dago harrespilean, eta gai horrek hots bat aterako luke: hitz-hots bat. Mintzoaren odola eta haren aho harrizko/harrigarria. (I. Seguroa)

[Oteizak **harrria** hartu zuen gaitzat, eta Seguroak gaitzat **hitzak** hartu ditu. Hor dago aldea. Izagirrearen irudian ikusten da ahoko hortzekin egindako harrespil bat, asmatutako zerbait da, jakina. *Harrespila* harriz egindako zirkulua da, eta *hitzespila* (Seguroak hitz hau asmatzen du) hitzez egindako zirkulua.

Hitzak nola ez baitiren ikusten, ahoko hortzekin adierazten da marrazkian esanahi hori.]

OTEITZAK

Harrespilak neolitiko garaian euskaldunek estilo amaitua, hutsa lortu zuten froga direla dio. Harrespilek **paisaiari gizakiaren neurria** ematen omen diote. **Hutsunea topatzea beharrezkoa** da arima indibidualak sortzeko, haiekin gero arima kolektiboa sortzeko. **Hutsunea topatzen duenak bi arima omen ditu.**

(...)

Cromlech: Euskal harrespila, estatua huts gisa interpretatzea

Historiaurreko artearen azterketa sakonean, Oteizak bilatzen ari zena aurkitu zuen: isiltasuna eta hutsunea, **harrespilan** irudikatuta, non elementu fisiko eta metafisikoak batzen diren. Eskultoreak bere liburuan harrespila honen azterketa sakona egin zuen, **Cromlech** izeneko hauek Neolito amaierako eta Brontze Aroaren garaian eraikitako hilobi eraikuntza megalitikoak dira, **zirkulu batean jarritako harri lauak osatuta**. Oteizak hauetan kutsu mistiko eta berezia ikusi zuen, gero behin eta berriro bere artelanetan ikusiko ditugunak. Harrespila garrantzitsuenak Ingalaterran eta Frantzia aurkitzen dira gehienbat, asmo espiritual eta magikoa duen hiri modukoa. Bere ustetan, artelan guztiek espazio bat okupatzen duten formak dira. Oteizarentzat, heldutasun estetikoak zen, prozesu kultural bat izan zuena; izan ere, harrespilen etxeko funtzioen eztabaidetatik kanpo zegoen. Praxikotik bere analisi estetikoaren balioa defendatu zuen, **harrespil horien izaera eraikuntza metafisiko, sinboliko eta espirituala dela baieztatzeko.** Wikipedia (quosque tándem)



Hostoak

Argazkilaria: Juan Luis Aizpuru Beristain



Argazkilaria: Juan Luis Aizpuru Beristain



Argazkilaria: Juan Luis Aizpuru Beristain

Arin, argi eta gozo bizi.

(Segurolaren esana)

Gure kea eta gure sua surfing

Dibulgazio lan hau bAst etxeak egin du 2022ko irailean.